

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, hainbat funtsezko baliabide behar ditu. Baliabide hauek gure balio-proposamena garatzeko eta bezeroarengana iristeko lagungarriak dira. Are gehiago, produktua erabilgarri bilakatzeko ezinbestekoak eta diru-sarrerak sortzeko oinarri sendo bat dira. Baliabide hauek lau kategoria nagusitan sailkatzen dira: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

1. Baliabide fisikoak

Baliabide fisikoek proiektua martxan jartzeko eta gailua funtzionatzeko behar diren elementu materialak barne hartzen dituzte.

- **Arbela garbitzeko gailua:** motorra, beheko barrak, gomak eta sentsoreak dituen. Gailu hau da gure balio-proposamena gauzatzeko oinarria.
- **Likido garbitzaileak:** arbel mota guztietarako egokiak (klarionentzako zein errotulagailuentzako), erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzeko.
- **Routerrak:** pasiloetan instalatuko dira, gailuak aplikazioarekin konektatzeko. Horrela, hainbat gailu modu zentralizatuan kontrolatu daitezke.
- **Ordenagailuak:** produktua diseinatzeko, prototipoak programatzeko eta proiektua kudeatzeko.
- **Lokal edo lan-espazioa:** prototipoak muntatzeko eta gailua probatzeko, segurtasun eta funtzionamendu egokia bermatzeko.
- **Brikolajerako oinarrizko materialak:** hauek izango dira lan-espazioan erabiliko dugun oinarrizko makineria produktua sortzeko.

Baliabide fisiko hauek ezinbestekoak dira produktua era seguruan garatu eta erabiltzeko. Azken batean, lan-prozesuaren berebiziko oinarri dira.

2. Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualek produktuaren berrikuntza eta ezagutza ukiezina biltzen dute. Honek proiektuaren lehiakortasuna eta defendagarritasuna ematen du. Gure kasuan, jada asmatuta dagoen asmakizun bat erabili eta eraberritu dugu beste eginkizun batzuk emanez.

- **Sistemen diseinua:** arbela garbitzeko gailu automatikoaren funtzionamenduaren ideiak adierazita dauden baliabidea.

- **Dokumentazioa eta kudeaketa digitala:** proiektua antolatzeko eta taldean informazioa partekatzeko tresnak.
- **Ikuspegi zientifikoa:** osasunarekin lotutako datuak eta ikerketak, produktua justifikatzeko.

Baliabide intelektualak produktua berritzaile eta defendagarria bihurtzen dute, baita erabiltzailearen segurtasuna eta osasuna bermatzeko oinarri zientifikoa eskaintzen dute.

3. Giza baliabideak

Giza baliabideak dira proiektua aurrera eramaten duten pertsonen ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak.

- **Sormena eta arazoak konpontzeko gaitasuna:** gailu eta aplikazio berritzaileak sortzeko.
- **Teknologia eta informatika ezagutzak:** aplikazioa garatzeko eta gailua konektatzeko.
- **Antolaketa eta koordinazioa:** talde-lana eraginkorra izan dadin.
- **Komunikazio eta aurkezpen gaitasunak:** ideia ikastetxeei eta bezeroei modu argi eta erakargarrian azaltzeko.
- **Ikasleen beharren ezagutza:** ikastetxeetako egoera ezagutzea, zehazki zein arazo konpondu behar diren.

Giza baliabide hauek dira enpresaren oinarria; pertsonen ezagutzak eta gaitasunak produktua martxan jartzeko ezinbestekoak baitira.

4. Finantza-baliabideak

Finantza-baliabideek proiektua martxan jartzeko behar diren diru-sarrera eta inbertsioak jasotzen dituzte.

- **Taldekieon aurrezkiak:** hasierako prototipoa garatzeko eta ideia martxan jartzeko.
- **Osagaiak erosteko inbertsioa:** gailuak muntatzeko, likidoak eta routerrak erosteko.
- **Diru-laguntzak edo ikastetxeen inbertsioak:** etorkizunean proiektua hedatzeko eta merkatura ateratzeko

Finantza-baliabide horiek dira ahalbidetzen dutenak ideia errealitate bihurtzea, prototipoak sortzea eta produktua merkaturatzeko oinarri segurua izatea.